


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ERRONDA 3



Egile eta data ezezagunak

(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboaren espedientean).

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina eta sei goi oin dituena, azken biak atzeraemanak. Harlanduzko fatxada goi oinetan, hormigoizko begiratoki bikoitza duena erdialdeko baoetan, bosgarren oin atzeraemanean galeria ireki gisa hedatzen dena. Behe oina kuxin formako kareharriz estalita dago. Konposizioari, apaingarriari eta sekzioari dagokionez Erronda 5en berdina da.

Babes erregimena

1.- Erregimene orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. goi oina, atzeraemana.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimene orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.